

Emily Dickinsonen poemak, Angel Errok eta Jorge de Senak jarriak*

IÑIGO ROQUE EGUZKITZA

...where every word is at home,

T.S. ELLIOT: *Four Quartets*

1. Poesia euskaratua

Badirudi poesiaren itzulpengintza indarraldian dagoela euskararen lurraldean, edo bederen oraintsu arte bezain kontu bakana ez dela. «Literatura Unibertsala» bildumari, esaterako, gabezia horixe seinalatu izan zaio behin baino gehiagotan (Aldekoa, 2001: 18), eta Pamielaren behialako ahaleginen ondoren («Sirena» edo «Marulanda» bildumetan) zimeldua eta usteldua bide zen kimu hori (Sarrionandiaren poema itzuli/apokrifoen bildumak, eta literatura-aldirizkrietako sorta luzeak atzendu gabe). Orain, ordea, badirudi berriro loratu dela eta galduxa egin duela: Denonartean etxea hasi zen bide hori urratzen, eta Susaren Munduko Poesia Kaierak zabaldu eta zolatu dute bidezidorra. Mugarri horietako bat dateke Juan Garziaren Shakespeareren *Sonetoen* itzulbertsio pertsonala, UPV/EHUko Mikel Laboa Katedrak apainkiro argitaratua eta 2014ko Euskadi Saria merezi izan duena.

Ni ere ibili naiz lardaskan alor horretan, eta ibili horretan izaniko intuizioez baliatu naiz lerro hauek ontzeko, nire ahalean besteren hitzak hartuz eta buruzioak hainbat argien harilkatzuz. Horretarako Munduko Poesia Kaierak bildumarako Angel Errok itzulitako Emily Dickinsonen liburua hartu dut langai (Dickinson, 2014), eta horren osagarria Jorge de Senak portugesera ekarritako *Emily Dickinson, 80 Poemas* (Sena, 2010) antologia ere izan dut bidelagun (edo itsumutil).

* Artikulu hau “Langintza Xeheki” sailean argitaratu zen lehenengoaz, 2015ean (http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Langintzaxeheki/LX_Roque_2015)

Testuak berak jorratuko ditugu hemen, baina, gaingiroki bada ere, beste gai batzuk aurkeztu nahi nituzke, nola edo hala jasota gera daitezen. Alde batetik, itzulpenok hizkuntza bakoitzaren sistemetan zer eginkizun duten argitu behar genuke. De Senaren itzulpena, esaterako, idazle portuges-brasildarraren obra osoen bilduman atera da berriki, sorkuntza-lanekin eta beste itzulpenen batekin batera. Errorenaren, berriz, MPK bilduman agertu zaigu, munduko poesiaren ikuspegia berezi bat, edo erakusgarri zabal bat behinik behin, barreiatu nahian, Koldo Izagirrek duela hamarkada bat euskal poesiarako hartutako lantegi bertsuan.

Itzultzale biak olerkari ezagunak dira portugesaren unibertsioan eta euskararen txokoan (Rikardo Arregi de Herediak MPK bildumarako ere egindako de Senaren antologiara jotzea dauka irakurle jakin-nahiak). Susmoak hartuta nago, aspalditik egon ere, idazleen itzulpenotan askatasun handiagoak hartzen direla, baina intuizio hori beste noizbait frogatu beharko dugu; berariaz, behintzat, nahiz lerrostan zenbait aieru agertuko diren. Bestalde, Brasilen Dickensonek kanonean zein leku gailen duen argi erakusten du itzultzaleen artean, besteak beste, Manuel Bandeira ere izateak.

Halaber, ez genuke ahaztu behar bi liburuak antologiak direla, eta hortik badatorke beste azterbide bat: zer poema eta zergatik hautatu diren. Edizioaz ere zerbait esan behar genuke, Dickinsonen obra gutxiz gehiena hura hil ondoren hedatu baitzen (urretik poema bakan batzuk baizik ez zituen argitaratu herriko kazetan), eta beharbada Amherst-eko mitoa ere gezuratu behar genuke, baina ez dut uste horretarako lekua denik, irakurleak xarmatzeko ezin eragin-korragoa bada ere: «O mito da reclusão tem também outros fortes adeptos mundo fora entre alguns tradutores, que se aprestam a atiçar a fantasia de leitores indecisos» (Lira, 2006: 28).

Itzultzaleek erabilitako jatorrizko testuez den bezainbatean, ordea, bai, komeni da zenbait argibide ematea. Dickinsonen obra gehiena eskuizkribuetan geratu zenez (eta erruz idatzi zuen, barren), testuak finkatzeko arazoak daude, eta baita testu amaituak amaitu gabekoetatik beriezteko ere. Eskuarki, bi edizio hartu izan dira kanonikotzat: Thomas H. Johnson-ena (1955) eta Ralph W. Franklin-ena (1998). De Senak eta Errrok Johnsonena erabili dute. Nolanahi ere, ñabarduraren bat bada itzulpenetako ahapaldi-banaketan, eta, harrigarria izanik ere, portugesezko itzulpenarekin batera ematen den testua ez da itzultzaleak erabilia, Franklinena baizik (aldeak badira, handi samarrak tarteka).

2. **Corpusa**

Artikulu honetarako, Thomas H. Johnson-ek apailaturiko edizioa (1955) erabili dugu erreferentzia gisa, halaxe egin baitute bi itzultzaleek. Guztira, hamabi olerkitan bat datoz de Senaren eta Erroren antologiak: 241, 288, 389, 547, 650, 903, 905, 980, 1065, 1127, 1582, 1732.

Itzulpenen edizioei dagokienez, guztiz nabarmentzekoa da zein desberdinak diren bi liburu-objektuak: portugesezkoan, jatorrizko eta portugesezko testuak parez pare ageri dira, orrialde bakoitzean poema bakarra emanet, eta tapa gogorra dauka, idazle-itzultzale ospetsuaren ospeari dagokion bezala; euskarazkoan, ostera, bildumaren disleinua erabat xumea da: ez jatorriz-

korik, ez tapa gogorrik, ez hitzaurre lutzerik. Liburuak ia ireki gabe ere baleukakete bazkarik eta zeresanik, beraz, polisistemen ikertzaileek eta kanonen agertzaileek.

Artikuluaren eranskin gisa eman ditugu olerki guztiak; jatorrizkoak, eta, ondoz ondo, Erroren eta de Senaren itzulpenak. Begi-zoliek guk baino barnago zulatuko dituzte konparagaiak, artikulu honetara ekarritako puskak baino mamitsuagoak baitira han utzitako zati osoak.

3. Poesia itzultzeaz

Poesia itzultzeak beti izan du zerbait kabalistikotik, eta teorialariek ez dute ezer askorik egin ustekizun hori ukatzeko. Jakobson-en «The name and nature of Translation Studies» artikulu ezagunak ere lagundu zuen hedatzen aburu hori; alegia, Itzulpengintza, edo Itzulpen Ikasleak, Hizkuntzalaritzatik askatu eta zientzia beregain gisa aurkeztu zuen lehenbizio artikuluak, zientziaren jaiotza-agiriak:

The pun, or to use a more erudite, and perhaps more precise term—paronomasia, reigns over poetic art, and whether its rule is absolute or limited, poetry by definition is untranslatable. Only creative transposition is possible [...]. (Jakobson, 2004: 143)

Robert Frost estabatuar olerkariak ere halatsu iritzi zion poesia itzultzeari: «Poetry is what gets lost in translation». Askotan ekarri izan da hizpidera esaldi ustez biribil hori, baina aipua bestelakoa zen, ez hain biribila: «I could define poetry this way: it is that which is lost out of both prose and verse in translation».

Gaur egun, ordea, baztertuxerik dago gogoeta hori, akademiako jendearen artean. David Bellosek, esaterako, mistikaz gabetu du poesiaren esanezintasuna, lantegiaren gogorra ostendu barik:

All the same is true that poetry provides translators with a task that is not only difficult, but in some senses beyond translation altogether. (Bellos, 2011: 152)

Ohargarria da, orobat, zeinen zorrotz ebazten duen auzia Bellosek, beti bezain argiro: «Translation is the enemy of the ineffable. It causes it to cease to exist» (*Idem*: 159).

Hala ere, itzulpengintzaren mugaldekoa da, askoren iritzian, poesia, itzulezintasunaren ere-mukoa, erlijio batzuentzat testu sakratuak ezin itzulizkoak diren hein berean. Itzulpena eta poesia oker ulertzetik etorritako aburuak dira horiek, inondik ere, bata eta bestea ia sakralizatzetik. Kontuak kontu, oraindik bizi-bizirik dago ustea. «Pessoa ulertzeko portugesez irakurri beharra dago», bota zidan, braust, ikusle batek poeta portugesaren antologia bat aurkezten ari nintzela Durangon. Eta Manuel Bandeirak ere, bizi guztia poesia itzultzen eman arren, adierazi zuen poesia funtsean itzulezina dela, ñabardurak ñabardura (Paes, 1990: 35), baina, kontraesa-n lirudikeen arren, Dickinsonen poesia ere itzuli zuen, ikusi dugunez.

Ewald Osers irakasleak poesia itzultzean hizkuntzak gorde beharreko zenbait ezaugarri jaso zituen artikulu ezinbesteko batean (Osers, 1978: 7-8): tentsioa, temperatura, karga eta, oroz gain, bestetasuna (*otherness*) («the way it differs from ordinary speech, the novelty of its em-

ployment in a particular context, the surprise it produces»). Horratx poesia ez irentzeko gakoa: ohiko adierazmoldeetatik aldentzea, horixe baita idazlearen hautua, emoziozko temperatura edo karga berezi bat eransteko testuari.

Kontuan izatekoa da, noski, hizkuntza poetikoaren muinean, bestetasun horren euskarri, metafora dugula, eta prosan baino askoz ugariagoak ditugula halako tropoak. Halakoak metaforak edo esamolde ihartuak diren erabaki beharko du itzultzailak:

Like all living things, metaphor gets stale with use, loses its original impact, and becomes an ordinary idiom or even cliché. [...] This, of course — since it has to do with the process of ageing — is more often a problem in diachronic translation. (Osers, 1978: 15)

Ez da aski, beraz, poesiaren hizkuntzaren jabe izatea; sorburu-hizkuntza maistraki erabiltzea ere eskatzen du eginkizun honek.

4. Dickinsonen poesia

Arestian bestetasunaz jardun dugu, poesiaren giltzarrietako bat dela esanez. Bada, Dickinsonen poesia koska bat gorago dago bestetasun horretan. Harold Bloom kritikari ezagunak dioenez (Bloom, 1995: 273):

Strangeness, as I keep discovering, is one of the prime requirements for entrance into the Canon. [...] Dickinson waits for us, perpetually up the road from our tardiness, because very few of us can emulate her by rethinking everything through for ourselves.

Ausarta behar du, horratik, Dickinsonen itzultzailak, zeren poesiaren bestetasunak (edo arroztasunak) ez ezik poetaren pentsamolde zulagaitza ere izango baitu eragozgarri, «haren konplexutasun intelektual miragarria» (*Idem*: 272). Poeta izatetik ote datorkie ausardia Errorri eta de Senari? Eta Manuel Bandeirari edo Paul Celani? Hor ere bada zer ikerturik, nik uste.

Jorge de Senak (2010: 27) gaitzesten ditu R.P. Blacmur-en esanak, Dickinson, hura menostu nahian, etxeko poetatzat (*poeta doméstico*) jotzen duenean; hain zuzen, *private poet* izate horretan baitatza haren indarra. Eta etxe-giroko poetaren ezaugarri batzuk bihikatzen ditu: oin traketsak, errima asonantea, ahapaldien batasun semantikorik eza, misterio-kutsua, xalotasun ezin erremediatuzkoa.

Horiekin batera, haatik, beste ezaugarri batzuk aipatzen dizkigu de Senak (*Idem*: 27-28): adierazpide eliptikoa, anbiquotasuna (urrekoaren ondore), agnostizismo burgoia, erlatibismo estoikoa... Guztiak ere kontuan izatekoak itzulpen-lanetan.

Delako hitzaurreak badu itzulpenaz diharduen atal bat, bosgarrena, «Observações acerca da tradução presente», non zenbait argibide eskaintzen baitizkigu de Senak bere ahaleginaren nondik norakoez. Aipatzen du, besteak beste, jatorrizko neurkera eta erritmoak gordetzen saiatu dela, bertsoak lerroz lerro eman dituela eta ez duela inoiz anbiquotasuna azalbidez bakundi; letra larrien erabilera (XIX. mendeko ortografía espresionistatzat jotzen du itzultzailak) bere horretan jaso duela ere eransten du.

Azkenik, aurrera baino lehen, hona aldatu nahi genuke zer-nolako buruargitasunez bereizten dituen Jorge de Senak bere baitako poeta eta itzultzalea:

Traduzir não é fazer poesia nossa com a poesia dos outros, mas fazer com a nossa língua o que uma Emily Dickinson teria feito e dito se, em português, experimentasse idêntico poema. (*Idem*: 29)

Hala, bada, dakartzagun Dickinsonen, Erroren eta de Senaren emaitzak. Beñat Sarasolak Angel Erroren itzulpenari paratutako hitzok gogoan hartuta: «Horiek guztiak kontuan izanik, esan gabe doa Dickinson itzultzea balentria izatetik aski gertu dagoen zerbait dela. [...] Dickinson itzultzea soilik, horrenbestez, aski lan laudagarria zatekeen» (Dickinson, 2015: 6).

5. Konparazioa: hiru testu, bi itzulpen

Asmo handirik gabe eta, batez ere, apaltasunez lotuko gatzaizkio hiru testuak alderatzeari, jakinik itzultzeko prozesuaren deskribapen herren bat lortuko dugula, gehienez ere, eta Dickinsonen kasuan ezinezkoa dela orotariko prozedurarak mamitzea:

[...] l'idolecte dickinsonien révélé sa plurivocité, sa complexité syntaxique et référentielle, autant d'obstacles majeurs à la mise en place d'un protocole global de traduction. (Patoyt, 2012: 659)

Ez dugu galeraZ ere jardungo, irabazpideez ere ezta. Aztergai batzuk zedarrituko ditugu, eta halakoetan bi itzultzaleek nola jokatu duten azaleratuko dugu. Aztergaiak, noski, ez ditugu hola-hola aukeratu: ohartuko zaretenez, poesia, oro har, eta Dickinsonen lanak, bereziki, habetzen dituzten nolakotasunak dira guztiak.

5.1. Neurkera

Bitxia gerta lekigu ke agnostikotzat hartua izan den autore batek himno anglikanoetara jotzea bere bertsogintzarako eredu eta neurkera gisa, baina ez harritzeko, huraxe baitzeukan eskura.

She appropriated the iambic rhythms and simple verse patterns of English hymnody, which had been famously utilized in the Isaac Watts hymns she knew from childhood, as controlling devices to lend structure and resonance to these disparate themes. (Reynolds, 2002: 189)

Neurkera horien artetik, *common meter* izenekoa erabili zuen ugarien: tetrametro janbiko eta trimetro janbiko txandakatuak (edo trokaikoak, janbikoen partez), lau lerroko ahapalditan gehienetan. Noski, euskarak zein portugesak arrotz dituzte halako moldeak, silabak zenbatzen baititzte eta ez silaba azentudunak (edo haien hurrenkera). Eta, hala, proportzio silabiko baliokide bat erabili behar genuke: 6/8/6/8.

Neurkera horrek, bestalde, askotariko aldaerak dauzka: *short meter* (6/6/8/6), *long meter* (8/8/8/8), balada... Hamalaukoak ere erabili zituen, tetrametroak eta trimetroak lerro bakkarean elkartuz. Dickinson, baina, ez zen zorrotza izan neurriekin, eta bere gogara egokituz zituen

sarri; janbikoak ia beti trokaiko bihurtuz, esaterako (alegia, silaba azentudunak azentugabeen aurrera ekarrita). Erroren eta de Senaren itzulpenek hortxe dute, beharbada, alderik nabarmenena: Angel Errok, berriz, doinuaren eta esanahiaren mende utzi du poemegitura, silaba-kontuak bazterturik (itzultzaleak berak jakinarazi digunez); de Senak, ordea, gorde egin du ezaugarri hori. Honela mintzo zaigu portuguesa:

No texto português, procurou-se, tão exactamente quanto possível, dar equivalências métricas e rítmicas dos originais, traduzindo-os, além disso, verso a verso. (Sena, 2010: 29)

Horrek, bistan denez, bere arriskua dakar, neurriaren kari adierazpideak itxuratu beharko baitira, era askotako egokitzapenak eginez. Carol Beckett-ek hitz zuhur hauek jarri zituen afera horren inguruan, Verlaine inglesera ekartzean hartutako erabakiak direla kontu.

I have made no attempt to replicate this melodic device [rhyme]. The reason for this is simple: all too often translators [...] will engage in linguistic contortions of a poem in order to imitate or reproduce a rhyme scheme similar to that found in the text which their translation is based. The resultant effect is, more often than not, grotesque. (Beckett, 2000: 87)

Esango nuke gure artean hizkuntza-maisutasunaren erakustaldi horiek ere (izan) direla poemen itzulpengintzan, ahazturik Octavio Pazek behinola idatzitako hitz zuhurroak:

El poema traducido deberá reproducir el poema original que, como ya se ha dicho, no es tanto su copia como su transmutación. El ideal de la traducción poética, según alguna vez lo definió Paul Valéry de manera insuperable, consiste en producir con medios diferentes, efectos análogos. Traducción y creación son operaciones gemelas [...]. (Paz, 1971: 16)

Transmutazio hori zer den aurrerago ikusiko dugu, beharbada. Ikus dezagun lehenbizi Jorge de Senaren itzulpenek ez daukala deus groteskotik:

288 (260)

I'm nobody! Who are you?
Are you — Nobody — too?
Then there's a pair of us—don't tell!
They'd banish us, you know.

How dreary to be somebody!
How public, like a frog
To tell your name the livelong day
To an admiring bog!

Não sou Ninguém! Quem és tu?
Também — tu não és — Ninguém?
Somos um par — nada digas!
Banir-nos-iam — não sabes?

Mas que horrível — ser-se — Alguém!
Uma Rá que o dia todo —
Coaxa em público o nome
Para quem a admira — o Lodo

Ez ditugu ekarriko hona Dickinsonen poema horren neurkeraz zabaldutako iritziak. Esan dezagun bigarren ahapaldia *common meter* edo baladaren egiturarekin bat datorrela ($a^3/b^4/a^3/b^4$); alegia, oinak silabatara ekarrita: 6A/8B/6A/8B sorta geneukake.

Lehenbizikoak, aldiz, egitura antzekoa du, baina ez dagokio molde horri bete-betean. Jorge de Senak silaba gehiago beharko ditu bigarren ahapaldia osatzeko. Itzultzailak berak aitortzen duenez, hainbat zorrotzen berrituko ditu jatorrizkoaren neurriok, baina ez erabat, ezta inondik ere: 8x, 6A, 6x, 8A. *Alguém* horrek aurreko ahapaldiko *Niguémekin* egiten du errima. Ikusten denez eskema metrikoa zeharo aldatzen da, baina berri bat sortzen, jatorrizkoaren morroi ez dena.

Errok, esana dugunez, uko egiten die halakoei:

Ez naiz Inor! Nor zara zu?
Zeu ere — ez zara — Inor?
Orduan bi gara? Ez esan
Inori — erbesteratuko gaituzte bestela.

Hau karga — Norbait — izatea!
Igelak bezala — norberaren izena
Aldarrika — gau eta egun —
Miresten zaituen putzu erdian.

Gutxiestekoal da Erroren ahalegina? Ezta inondik ere. Susan Bassnett-ek Poesia Itzulpengintzako Stephen Spender Sarian bildutako esperientziatik bi irizpide balios utzi dizkigu poesia-itzulpenak epaitzeko: a) jatorrizkoak bezain poema onak izan behar dute, eta b) zelanbaiteko lotura izan behar dute jatorrizkoak eta itzulpenak (Bassnett, 2015: 164). Ez da asko, baina aski da.

Hasierako ahapaldiak badu silabazko kadentzia zoragarri bat: 4! + 4?/ 3 — 3 + 2 / 6 + 2 / 3 — 7. Noski, hoskidetasunak, marra luzeen erabilera, errepiakak, irudiak... Horrek guztiak ere tankeratzen du poema, eta euskal poema zoragarria da, bistan denez.

5.2. Errima

Silaba-kopuruarekin batera, noski, errimak ematen die itxura ahapaldi motei. Dickinsonen kezka nagusia zen hitz doia bilatzea, eta ez hainbeste errima biribila (garaiko errima moten arlo azkengabeak arnasa laburtuko lioke ezein hilkorri, zinez).

Ezaugarri honetan, aurreko atalean bezala, de Senak eta Errok ez dute berdin jokatzen. Portugesez gehienetan gorde egin dira, nola edo hala; euskaraz, behin ere ez. Dakargun adibide bat:

1732 (1773)

My life closed twice before its close—
It yet remains to see
If Immortality unveil
A third event to me

So huge, so hopeless to conceive
As these that twice befell.
Parting is all we know of heaven,
And all we need of hell.

Duas vezes me findei antes do fim —
Mas ainda estou pra ver
Se lá na Imortalidade
Isto torna a acontecer

Por forma tão medonha e desesperada
Como as duas que sofri.
Partir é tudo o que do céu sabemos,
E do inferno basta aqui.

Dickinsonenean lerro bikoitiak errimadun, eta de Senaren bertsioan ere bai. Gurea landerrago ote den soinu aldetik? Egingo nuke ezetz. Goazen hurrengo atalera.

5.3. Erritmoaren beste osagai batzuk

Zinezko musikaz beterik dago Erroren itzulpena, hoskidetasunak, durundiak eta abar lagun. Gatozen berriro 1732 poemara.

Nire bizitza bi aldiz itxi zen itxiera aurretik —
Ikusteko dago
Hilezkortasunak agerraraketan didan
Hirugarren gertakizun bat.

Lehenago bitan gertatutakoak
Bezain handia, bezain bururatu ezina.
Partitzea da zerutik dakigun bakarra
Eta infernutik behar dugun guztia.

Aurreneko lerroa mirari bat da, *i i i i i i i i i i*; «miriri» bat. Eta lehenbiziko ahapaldiko lerro guztien abiaburuak ere: *ni-*, *i-*, *hi-*, *hi-*. Ingelesez, ez hain nabarmen baina hor ditugu bigarren eta hirugarren lerro hasieretan: *it* eta *if*. Eta euskarazko *i* horien hotsez gatz-ozpindurik dator ahapaldi osoa: *my*, *life*, *twice*, *its*, *it*, *remains*, *see*, *immortality*... Euskaraz, noski, efektua area-gotua da, errimaren gabezia berdintzearren, menturaz.

Ez dira, halere, ahapaldi horretako hoskidetasun bakarrak.

Edith Grossman itzultzailak (2010: 96), poesiaren ezaugarriak eta, azken batean, mugarri formalez diharduela, oso argi du zein den gailena: erritmoa.

The primary concern for me has always been a fairly obvious but deceptively simple question: how would I write the poem if I were composing it in English within the formal constraints set by the poet? The constraints include but are not limited to elements of form such as rhythm, meter, rhyme, stanzaic structure, and line length. I believe that of all these poetic elements the most important is rhythm.

Aipatu ere, aipatu dugu musika atal honen buruan, eta ez urririk. Grossmanek ere lerroen taupak aipatzen ditu, erantsiz itzultzalearen eginbeharra dela taupa hori aditza, aditza eta antzeko pultsu bat ekartzea xede-hizkuntzara. Erroren bertsioan badira halako zantzuak. Jo dezagun lehen ahapaldira:

- Lehen ahapaldiko azken hiru lerroen abiaburuko *i* hotsak (*i-, hi-, hir-*), ingelesezko bigarren eta hirugarren lerroetako hasieren berritzaleak.
- Lehen ahapaldiko azken bi lerroetako *r* bakun nahiz bikunen erreskadak, eta *k/g, z, n* eta *t* hotsen ugaritasun eufonikoa (*hilezkortasunak, agerrazten, hirugarren, gertakizun*). Errima «konpentsatzeko» baliabide ahalsuak, baiki.

Merezi du, orobat, 241 poemaren hondar leroko aliterazioaz labur mintzatza: «By homely Anguish strung». Aise ohartuko gara euskarazkoaren indarra are bikainagoa dela («Larrimin arruntak hariztatua»), eta portugesezkoak bidean galdu duela etxekotasuna («E pela Angústia enfiadas») neurkeraren amoreagatik.

Dickinsonen errepikak ere franko erabili zituen, lerro hasieretan batik bat, poemen doinua zurkaizteko. Horren adibide esanguratsu bat 1065 poema dugu, non, lehen ahapaldiko aurreneko bi lerroetan izan ezik, bertso-lerro guztiak berdin hasten baitira binan-binan.

1065 (1117)

Let down the Bars, Oh Death —
The tired Flocks come in
Whose bleating ceases to repeat
Whose wandering is done —

Thine is the stillest night
Thine the securest Fold
Too near Thou art for seeking Thee
Too tender, to be told.

Esan beharrik ez dago gure bi itzultzaleek erreparatu ziotela egoera horri eta beren testuetan berritzera lehiatu zirela.

Zabaldu burdin hesiak, o Herio —
 Artalde nekatuak sar daitezen,
Haien balakak ez dira jada aditzen
Haien harat-honatak akiturik —

Zurea da gauetan bareena
 Zurea da artegietan seguruena
 Gertuegi zaude zure bila joateko
 Samurregia, izendatua izateko

Abre as Cancelas, ó Morte —
 Que exaustos Rebanhos entram,
 Cujos balidos se calam,
 Cujas andanças se acabam —

É mais calma a tua noite,
 Mais seguro o teu Aprisco.
 Tão perto para buscada,
 Tão terna para ser dita.

Errepikak ez dira bete-beteak, ikusten denez. Euskarazkoan, herrena azken lerro bikotean dator, nahiz morfologikoki beste aukera batzuk ere izan dituen itzultzailak: *sobera/lar* graduatzaileak eranstea aurretik izenondoei. Portugesez are nabariagoa da errepikaren kamustasuna: hirugarren eta laugarren lerroetan, genero-kontu batek makesten du emaitza (*cujos/cujas*), erre-pika aise biribildu zitekeen arren genero bereko izenak baliaturik (*balidos* eta *trasfegos*, kasurako). Halere, Dickinsoni aitortzen badiogu soinuaren kaltean (eta konnotazioaren mesedean) hitz doia aukeratzeko eskubidea, zer esanik ez itzultzaileari.

Eta zer dela eta erantsi duen *eta* juntagailua de Senak? Silaba bat irabazteko, bistan denez, baina bazeukan bestela jokatzerik, lerro hasierako errepika eten gabe. Ezin zaizkigu itzuri, ordea, funtsezko bi faktore: «itzultziale-ahots poetikoa» (Bassnett, 2015: 162) eta «testuartekotasunaren sekretua» (Sousa, 1973: 58). Alegia, kontuan izatekoak dira itzultzailaren barne-ahotsa eta, horrekin batera, berak idatzitako poemak eta berak irakurriak.

Jokabide horien kontradibiderik ez dugu eskas. Besteak beste, 288 poemara jo besterik ez dago, non hotsen errepikak lehengo adibidekoen antzerakoak baitira: *the-/the-//how/how/to/to*. Gure bi itzultzileek, ordea, ez ikusia egiten diete.

5.4. Metaforak, paradoxak...

Metaforek, paradoxek eta pentsamenduzko beste irudi batzuek, itxura batean, ez lukete zertan ezin gaindituzko traba izan itzultzailarentzat. «Non fida, han gal» esan behar genuke, ez baita dirudien bezain erraza egiteko. Errepara diezaiogun Dickinsonen poema honi:

1582

Where Roses would not dare to go,
 What Heart would risk the way —
 And so I send my Crimson Scouts
 To sound the Enemy —

Arrosaren irudia oso arrunta da Dickinsonen poesiagintzan. Sarri erleekin batera ageri dira, sexu-kutsuko topaldietan (438, 1339); batzuetan zimeltzen dira, besteetan hiltzen; inoiz neskatila bat dira, eta hemen, berriz, *crimson scout* batzuk, etsaia barrandatzen dutenak. Hara nola ematen duten poema koxkor hori bi itzultzaleek.

Arrosak menturatzentz ez diren tokian
Arriskatu nahi izango duene Bihotzak?
Esploratzaire gorriminok bidaltzen ditut
Etsaiaren mendeko lurrik zelata ditzaten.

Lá onde as Rosas não se atrevem,
Que Coração não teme o perigo —
Por isso eu mando Vanguardas
Para sondar o Inimigo.

Aurrena, metaforari lotu aurretik, utzidazue goraipatzen Errok lortutako lerro hasierako eufoniak (*arr-/arr-* eta *es-lets-*) eta ahapaldiaren trinkotasun grafikoa. Orain, bihur gaitezen arrosetara, bada. Errok *esploratzaire gorrimin* bihurtzen ditu, eta hala nabarmendu loreen eta soldaduen arteko lotura (soldadu jakagorriak ere irudika litzake irakurle gogoaskeak). Jorge de Senak, aldiz, ez du inondik ere halako errazbiderik eskaintzen, «eu mando vanguardas», ez «minhas vanguardas» ere, eta, beraz, oso urrunekoa gertatzen da arrosen eta *vanguarda* horien arteko erreferentziazkotasuna. Izan ere, *arrosa, bihotz, esploratzaire* hirukoan, esploratzaleei (edo aitzindariei) baino ez zaie erantsi behar gorritasunaren aipua. Arrosak beste kolore batekoak izan litezke, noski, baina ikertzaileek identifikatua dute zer arrosa klasez ari den poema: «[...] Emily grew the heavily scented Bon Silene rose, a Tea or China rose, with deep crimson petals identified as *R. odorata*» (Farr, 2004: 234).

Euskarazkoak badauka, eduki, nahasgarri izan litekeen hitz bat: *etsai*. Etsaia deabrua baita zenbait hizkeratan (Goierrri aldean, bai, behintzat), eta irudizko adierazmoldeak behar baino urrunago eraman dezake, hartara, irakurlea. Eta azken lerro horretan bertan, nabaria da «sondar o Inimigo» hurbilagoa dagoela jatorrizko «to sound the Enemy» horren hotsanditik euskarazko baino, zeren Errok beste era bateko poema bat eratu du, bigarren lerroko marra luzeari uko eginda, esaterako, eta nolabait luzatu egin behar izan du adierazia, «the Enemy» zehaztuz eta ia nortuz (mendeko lur bat emanetz).

5.5. Tipografía

Irakurlea berehala ohartuko zaie jatorrizko testuko letra larriei eta marra luzeei. Letra larriak garaiko modaren arrasto dira, inondik ere, eta marra luzeak erritmoari lotuak ageri dira. Biak ala biak, oro har, gordetzen saiatu dira Erro eta de Sena, meritu handiz:

Le mérite de conserver le même nombre de tirets que dans la version originale et de préserver le rythme solennel ainsi créé. (Patoyt, 2012: 656)

Azaleko azterketa bat aski da konturatzeko letra larrien faltak edizio-laneko hutsegite direla, baina marra luzeen erabilera, doinuarekin ez ezik, joskerarekin ere badauka lotura handia. Be-

raz, ez da hain automatikoa itzulpenetan. Dickinsonen adierazmolde trokatuaren erakusgarri ere badira markok, eta batzuetan hizkuntzen arteko zubigintzak ezerezten ditu:

[...] frequent use of dashes, instead of the conventional punctuation... has the effect of breaking down categories with their implication of fixed meanings and relations. (Knights, 1988: 159)

6. Hondarkina

Zorigaitzez, gehiago dira landu gabeko alorrak artikulu honetan landutakoak baino: lexiko hautuak, lerroz lerroko antolaerak, itzultzaila-poetaren itzala... Mereziko luke geroenean harioi ere kontu egitea mataza osatzen jarraitzeko. Izango dira gu baino jakintsuagoak eta burutsuagoak.

Anartean, Rachel Tzvia Back (2012) poeta, itzultzaila eta ikertzailearen gogoeta hau paratu-ko dizuet hemen, gogoa alhatzen segi dezazuen.

[...] the translator's craft and art is a confluence of paradoxes. The challenge to the translator is to negotiate these paradoxes without attempting to resolve them, for it is the very paradoxes of translating poetry that are the source not only of translation problems, and even failures, but also of generative possibilities in literary representation and cultural bridgings.

Orain, segi, denok, eranskinera, han josteta ederrak aurkituko dituzue eta.

BIBLIOGRAFIA

- Aldekoa, Iñaki, eta Olaziregi, Marijose: «Zenbait gogoeta Literatura Unibertsala bildumaz», *Senez* (23. zk.), 2011.
- Bassnett, Susan: «The complexity of translating poetry», *Ticontre: Teoria Testo Traduzione* (3. zk.), Trentoko Unibertsitatea, 2015.
- Brooks, Cleanth, eta Penn Warren, Robert (ed.): *Conversations on the Craft of Poetry with Robert Frost, John Crowe Ransom, Robert Lowell, Theodore Roethke*, 3. argit., Holt, Rinehart and Winston, 1961.
- Dickinson, Emily: *Emily Dickinson*, Munduko Poesia Kaierak, Susa, 2015 (itz.: Angel Erro).
- Farr, Judith, Carter, Louise: *The Gardens of Emily Dickinson*, Harvard University Press, 2004.
- Grossman, Edith: *Why Translation Matters*, Yale University Press, 2010.
- Knights, L.C.: «Defining the Self: The Poems of Emily Dickinson», in Boris Ford (ed.) *The New Pelican Guide to American Literature*, IX. lib., Penguin, 1988.
- Lira, José: «Os Mitos de Ontem e as Faláncias de Hoje: Emily Dickinson e a Poesia Sentimental», *Revista Letras: Curitiba* (68. zk.), Editora UFPR, 2006.
- Paes, José Paulo: *Tradução a Ponte Necessaria: Aspectos e Problemas da Arte de Traduzir*, Editora Ática, 1990.
- Patoyt, Claire: «La traduction à l'épreuve des poèmes d'Emily Dickinson : l'impossible protocole ?», *Meta*, 57. lib., 3. zk., 2012.
- Paz, Octavio: *Traducción: literatura y literalidad*, Barcelona, Tusquets, 1971.
- Reynolds, David S.: «Emily Dickinson and popular culture» in Wendy Martin (ed.): *The Cambridge Companion to Emily Dickinson*, Cambridge University Press, 2002.
- Sena, Jorge de: *80 Poemas de Emily Dickinson*, Jorge de Sena: Obras Completas, Guimarães, 2010.
- Sousa Rebelo, Luís de: «Jorge de Sena e a arte de traduzir», *Coloquio/Letras* (11. zk.), Fundação Calouste Gulbenkian, 1973.
- Tzvia Back, Rachel: «Translating Poetry: An Act and Art of Preserving the Essential», Marginalia, LA Review of Books, 2012ko maiatzak 20.

241 (339)

I like a look of Agony,
Because I know it's true —
Men do not sham Convulsion,
Nor simulate, a Throe —

The Eyes glaze once — and that is Death —
Impossible to feign
The Beads upon the Forehead
By homely Anguish strung.

Agoniaren ixura bat gogoko dut —
Egiazko dela badakidalko —
Inork ez du espasmorik antzeraten —
Ez egiten hil korroken plantarik —

Begiak bat-batean lausotzen dira —
Eta horixe da Heriotza —
Ezin kopetako perlak ixuratu,
Larrimain arruntak harizatuk.

Gosto de ver Agonias,
Porque se o que são verdade —
Convulsões não se simulam —
Nem se imitam Extortores.

Viafam-se os Olhos à Morte —
Impossível fingir
As Bagas perlando a Testa
E pela Angústia enfiadas.

288 (260)

I'm nobody! Who are you?
Are you nobody, too?
Then there's a pair of us—don't tell!
They'd banish us, you know.

Ez naiz Inor! Nor zara zu?
Zeu ere — ezz zara — Inor?
Orduan bi gara? Ez esan
Inori — erbesteratuko gaituzte bestela.

How dreary to be somebody!
How public, like a frog
To tell your name the livelong day
To an admiring bog!

Hau karga — Norbait — izatez!
Igelak bezala — norberaren izena
Aldarrika — gau eta egun —
Miresten zaituen putzu erdian.

Não sou Ninguém! Quem és tu?
Também — tu não és — Ninguém?
Somos um par — nada dizes!
Banir-nos-iam — não sabes?

Mas que horrível — ser-se — Alguém!
Uma Rã que o dia todo —
Coaxa em público o nome
Para quem a admira — o Lodo

ERANSKINA

389 (547)

There's been a Death, in the Opposite House,
As lately as Today —
I know it, by the numb look
Such Houses have — alway —

The Neighbors rustle in and out —
The Doctor — drives away —
A Window opens like a Pod —
Abrupt — mechanically —

Somebody flings a Mattress out —
The Children hurry by —
They wonder if it died — on that —
I used to — when a Boy —

The Minister — goes stiffly in —
As if the House were His —
And He owned all the Mourners — now —
And little Boys — besides —

And then the Milliner — and the Man
Of the Appalling Trade —

To take the measure of the House —

There'll be that Dark Parade —

Gundi — eta Xingolekin — laster —
Of Tassels — and of Coaches — soon —
It's easy as a Sign —
The Intuition of the News —
In just a Country Town —

Heriotza bat gertatu da Aurreko Etxean,
Gaur bertan izan da —
Jakin dut, horrelako Etxeek — beti —
dutun aire goiblagatik —

Auzokideen hara-hona asaldatua —
Medikuak — alde egin du —
Leiho bat ireki da leha baten antzera —
Brauki — mekanikoki —

Norbaitek lastaira bat bota du —
Haurrak korrika pasa dira aurrekik —
Beren baitarako ea hor etzanda — hil den —
Nik galdezten nuen moduan — txikitain —

Apaitza — nabastarrez sartu da —
Etxea Berca balitz bezala —
Eta — orain — Mindun guztien Jabea
Balitz bezala — bai eta Haurreña ere —

Eta gerot meztizera datorrena —
eta Lanbide ikaragarriko Gizona —
Etxearen neurriak hartzeko —
Segizio iluna egongo da —

Gurdia — eta Xingolekin — laster —
Simboloa bezain erraza da —
Herri ixiki batean —
Zer gertatu den asmatzea —

Morreu alguém naquela Casa em frente
E hoje deve ter sido —
Eu sei disso pelo aspecto
Que em tais casas é devido.

Vizinhos entram e saem —
O médico — vai-se embora —
Mecânica, abrupta, se abre —
Como vagem — a janela.

É posto ao ar um Colchão —
As Crianças logo acorrem —
E pensam se morreu nele —
Eu pensava — quando jovem —

O Pastor — entra empinado —
Qual dono da casa fora —
E já comanda o Luto de todos —
E o dos meninos — também.

Vem depois o Alfaiaete —
E o do terrível comércio —
Para tomar as medidas —
Haverá Desfile — não tarda —

De Coroas — e de Carros —
São tão fáceis estes Sígnos —
Intuição das Novidades —
Em Cidade de Província

547 (648)

I've seen a Dying Eye
 Run round and round a Room —
 In search of Something — as it seemed —
 Then Cloudier become —
 And then — obscure with Fog —
 And then — be soldered down
 Without disclosing what it be,
 "T were blessed to have seen —

Hizorian den baten begia ikusi dut
 Gela osoa behin eta beritz arakatzen —
 Lanbrotsuagoa bilakatzten zitzaison
 Zerbaiten xerka — bazitridien —
 Lanbrotsuago bilakatzten zen zerbaitena —
 Eta gero — Lainoa bezain ilun —
 Eta gero — Itzalean iltzatuta —
 Argitu gabe zer ote zen
 Ikustea hainbeste merezi zuen hura.

650 (760)

Pain — has an Element of Blank —
 It cannot recollect
 When it begun — or if there were
 A time when it was not —

Oinazeak — hutsunca du parte —
 Ezin gogora daitcke
 Noiz hasi zen... edo inoiz
 Minik gabeko unerik izan ote den —

Ez du bere burua — beste Gerorik —
 Iragana du bere baitan
 Pizturik — erne oinazzealdi berriak
 noiz etorriko.

903 (80)

I hide myself within my flower,
 That fading from your Vase,
 You, unsuspecting, feel for me —
 Almost a loneliness.

Tenho visto Olhos que Morrem
 Voltando em volta do Quarto —
 Como à procura — de quê? —
 E depois envoarem-se —
 E depois — obscurecerem —
 E depois — soldadas pápebras
 Sem me terem dito o que
 Seria tão bom ter visto.

Há um elemento de Vazio na Dor -
 Que não sabe recordar-se
 De ter princípio — ou de haver
 Um dia em que ela não fôra —

É seu Futuro — ela mesma —
 Seu reino infinito contém
 O Passado — aprendendo
 Novas Épocas de Dor.

Esconde-me na minha flor,
 Para que, murchando em teu Vaso,
 tu, insciente, me procures —
 Quase uma solidão.

905 (829)

Between My Country — and the Others — Nire Herrialde — eta Besteet artean — Entre o meu País — e os Outros —
There is a Sea — Itsaso badago — Há um Mar —
But Flowers — negotiate between us — Baino Loreek — gure artean negoziatzen dute — Mas Flores — negociam entre nós —
As Ministry. Diplomatikoen antzera. Como embaixadas.

980 (896)

Purple — is fashionable twice — Purpuraren sasoia — bi alditan da — Duas vezes se usa Púrpura —
This season of the year, Urtaro honetan Nesta época do ano,
And when a soul perceives itself Eta Arimak bere burua E quando a alma conhece
To be an Emperor. Enperadore dazagunean. Que é um Imperador.

1065 (1117)

Let down the Bars, Oh Death — Zabaldu burdin hesialk, o Herio —
The tired Flocks come in Artalde nekatuak sar daitzen,
Whose bleating ceases to repeat Haien balakak ez dira jada aditzen
Whose wandering is done — Haien harat-honatak akiturik —

Thine is the stilllest night Zurea da gauetan bareena
Thine the securest Fold Zurea da artegietan seguruena
Too near Thou art for seeking Thee Gertuegi zaude zure bila joateko
Too tender, to be told. Samurregia, izendatua izateko

Nire Herrialde — eta Besteet artean — Entre o meu País — e os Outros —
Há um Mar —
Mas Flores — negociam entre nós —
Como embaixadas.

Purpuraren sasoia — bi alditan da — Duas vezes se usa Púrpura —
Nesta época do ano,
E quando a alma conhece
Que é um Imperador.

Zabaldu burdin hesialk, o Herio — Abre as Cancelas, ó Morte —
Artalde nekatuak sar daitzen, Que exaustos Rebanhos entram,
Cujos balidos se calam, Cujas andanças se acabam —
Cujas andanças se acabam —

É mais calma a tua noite,
Mais seguro o teu Aprisco.
Tão perto para buscada,
Tão terna para ser dita.

1127 (1146)

Soft as the massacre of Suns
By Evening's Sabres slain

Eguntasentariaren sableek zauritutako
Eguzkien triskantza bezain leuna.

Suave como o massacre dos Sóis
Mortos pelos sabres do Anoitecer.

1582 (1610)

Where Roses would not dare to go,
What Heart would risk the way —
And so I send my Crimson Scouts
To sound the Enemy —

Atrosak menturatzan ez diren tokian
Atriskatu nahi izango du ene Binotzak?
Esploratzale gorriminok bidalzen ditut
Etsaiaren mendeko lurralk zelata ditzaten.

1732 (1773)

My life closed twice before its close—
It yet remains to see
If Immortality unveil
A third event to me

Nire bizitza bi aldiz itxi zen itxiera aurretik —
Ikusleko dago
Hilezkortasunak agerrazaten didan
Hirugarten gertakizun bat.

So huge, so hopeless to conceive
As these that twice befell.
Parting is all we know of heaven,
And all we need of hell.

Lá onde as Rosas não se atrevem,
Que Coração não teme o perigo —
Por isso eu mando Vanguardas
Para sondar o Inimigo

Duas vezes me findei antes do fim —
Mas ainda estou pra ver
Se lá na Imortalidade
Isto torna a acontecer

Lehenago bitan gertatutakoak
Bezain handia, bezain bururatuzina.
Partitza da zerutik dalgun bakarra
Eta infernutik behar dugun guztia.

Por forma tão medonha e desesperada
Como as duas que sofri.
Partir é tudo o que do céu sabemos,
E do inferno basta aqui.

Resumen

A partir de ciertos prejuicios en torno a la intraducibilidad de la poesía, este artículo pretende ofrecer un punto de vista abierto sobre este campo de la traducción, recurriendo a opiniones expertas de varias épocas y lugares. Con la ayuda de esas reflexiones, el autor ha recorrido de nuevo los caminos transitados por Angel Erro y Jorge de Sena al traducir la obra de Emily Dickinson.

Résumé

Partant d'un certain nombre de préjugés sur l'impossibilité de traduire la poésie, cet article essaie de présenter un point de vue ouvert sur le domaine de la traduction, en ayant recours à l'opinion d'experts d'époques et de lieux divers. Fort de ces réflexions, l'auteur de cet article a parcouru les chemins foulés par Angel Erro et Jorge de Sena, au moment de traduire l'œuvre poétique d'Emily Dickinson.

Abstract

Although it begins with certain prejudices regarding the impossibility of translating poetry, this article hopes to offer an open point of view on this area of translation by turning to expert opinions from various times and places. With the help of these reflections, the author again walks trails blazed by Angel Erro and Jorge de Sena in translating the work of Emily Dickinson.